

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN PROFESIONALEN ERREGISTROA

8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa,
Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera
fisikoko eta kiroleko profesionalak
sartu eta jarduteari buruzkoa



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Kirolarik hazi eta ikasi



EUSKARAREN
KALITATE-ZIURTAGIRIA
CERTIFICADO DE CALIDAD
DEL EUSKERA

ZER DA?

Profesionalen erregistro bat da eta honako lege honi erantzuten dio: 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa.

NORTZUK EGON BEHAR DUTE IZENA EMANDA?

- Gorputz-hezkuntzako profesionalak*
- Jarduera fisikoko monitorea
- Hastapenetako lehiaketa, hobekuntza eta goi-errendimenduko entrenatzaileak
- Erakundeetako kirol-zuzendariak
- Langile boluntarioak

* Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zuzenean bidaliko ditu gorputz-hezkuntzako irakasleen datuak EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistro berrira.

HELBURUAK ETA ONURAK

- Jarduera fisikoa eta kirola egiten duten pertsonen segurtasuna eta osasuna bermatzea.
- Erregistroa sarbide publikokoa da. Herritarrek modu anonimoan eta zuzenean erregistroa kontsultatu ahal izango dute.

EPEAK

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoaren eta kirolaren profesionalen erregistroan izena emanda egotea nahitaezkoa izango da lanbidean jarduteko, ekainaren 30eko 8/2022 Legea betez.

Plataforma uneoro egongo da irekita altak, bajak edo aldaketak egiteko.

IZENA EMATEKO PROZEDURA

ERREGISTROA

- **Izena emateko plataformarako sarbidea:** www.euskadi.eus/kiroleskola
- Erregistroan inskripzioa erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egiten da. Adierazpen hori pertsonala da eta identifikazio elektronikoa behar da plataformara sartzeko.
- **Eskatutako informazioa:**
 - **Titulu ofizialak:** oro har, plataforma zuzenean sartuko da titulu ofizialetara. Zuzeneko sarbidea lortzen ez bada, plataformara igo beharko dira.
 - **Titulu ez-ofizialak:** dokumentazioa plataformara igo behar da.
 - **Esperientzia:** aldi baterako gaikuntza eskatzen duten pertsonak bakarrik igo beharko dute lan-esperientzia kontratuen edo lan-bizitzaren bidez egiaztatzen duen dokumentazioa.
- **Behin-behineko inskripzioa eta behin betiko inskripzioa:** Erantzukizunpeko adierazpena egiten duen pertsonak automatikoki jasoko du behin-behineko inskripzioa, eta lanbidean jarduteko egokitzen joko da. Inskripzioa behin betikoa izango da erakundeak egindako baliozkotze-prozesuaren ondoren.
- **Izen-ematea berritzea:** Ez da inskripzioa berritu behar, aldi baterako gaikuntzen kasuan izan ezik. Plataforma uneoro egongo da irekita altak, bajak edo aldaketak egiteko.
- **Inskripzio-ziurtagiriak bidaltzea:** Erantzukizunpeko adierazpena egiten duen pertsona bakoitzak behin-behineko inskripzioaren egiaztapena jasoko du. Erakundeak erantzukizunpeko adierazpena baliozkotu ondoren, inskribatutako pertsonak behin betiko inskripzioaren ziurtagiria jasoko du.

ESTEKAK



IZEN-EMATEAK



Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Profesionalen Euskal Erregistroan
inskribatzeko esteka zuzena



KONTSULTAK



Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
Profesionalen Erregistroko
kontsultarako zuzeneko esteka

AURKEZPENAK

AURKEZPEN OFIZIALA

- 📅 Urriak 10
- 🕒 11:00
- 📍 Basque Team Zentroa
(Fadura, Getxo)



IZENA EMAN

ARABA

- 📅 Urriak 14
- 🕒 18:00
- 📍 BI BAT aretoa
(Vitoria-Gasteiz)



IZENA EMAN

BIZKAIA

- 📅 Urriak 15
- 🕒 18:00
- 📍 Kiroletxea
(Miribilla, Bilbao)



IZENA EMAN

GIPUZKOA

- 📅 Urriak 16
- 🕒 18:00
- 📍 Kiroletxea
(Donostia)



IZENA EMAN

LAGUNTZA

ADi^{EX}



Galdetu ADIri jakin nahi duzuna

ADInex gai honi buruz
sortutako dokumentazioarekin
entrenatutako adimen
artifiziala da.



F.A.Q.



Gaiari buruzko 360 galdera eta erantzun
baino gehiago dituzten dokumentuak



HITZALDIAK



2022tik aurrera egindako
hitzaldien bideo-artxiboa